

DEXEUS SALUD DE LA MUJER FUNDAZIOAREN IKERKETA KLINIKOKO PROIEKTUETARAKO 2015eko BEKEN DEIALDIA

Deialdiaren helburua:

Ikertzaile gazteei zuzendutako laguntzak, helburu gisa prestigio handiko erakunde espainiar batean ikerketa klinikoko proiektuak gauzatzea dutenak.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

Eskatzaileek osasun zientzietako goi mailako lizentziatura edo tituluren bat izan beharko dute, eta titulu hori Espainiako unibertsitate batek emandakoa izan beharko du. Lehentasuna emango zaie ikertzaile nagusi gisa 40 urte baino gutxiagoko pertsona bat duten proiektuei (2015eko azaroaren 1ean).

OHAR GARRANTZITSUA: UPV/EHUn gauzatu beharreko proiektuen kasuan, ikertzaile nagusiak proiektu osoan zehar Unibertsitatearekin izango duen funtzionario, estatutu edo kontratu harremana egiaztatu beharko du.

Ikerketa taldeko kideek eskaera aurkezteko unean bakarrik egiaztatu beharko dute harreman hori.

Laguntzak:

Bost laguntza emango dira, 3.000 eurokoak, ezarritako zerga betebeharreki dagokien zenbatekoa barne.

Proiektuen iraupena:

2 urte.

Ikerketa ildoak:

- a) Ginekologia orokorra
- b) Amaren eta fetuaren medikuntza
- c) Ginekologia onkologikoa
- d) Ugalketarako medikuntza
- e) Obstetriaren eta ginekologiaren arloko oinarrizko zientziak

Eskaerak aurkezteko modua:

Eskaerak honako aplikazio honen bidez bakarrik aurkeztu ahal izango dira: <http://campus.dexeus.com/node/add/scholarships>.

Ikertzaile nagusia arduratuko da eskaera dagokion bezala eta epearen barruan aurkezteaz. Ez da posta elektronikoki bidez bidalitako formulariorik onartuko.

Eskaerak aurkezteko epea:

2015eko azaroaren 1eko, igandea, 22:00ak arte.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. Eskaera eta memoria. Formularioa [hemen](#) eskura daiteke.
2. Ikertzaile nagusiaren CVa.
3. Deialdiaren oinarriak, honako hauen sinadurarekin: ikertzaile nagusia, ikertzaile nagusiari dagokion taldearen arduraduna, eta UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordea.
4. Ikerketa taldearen arduradunak eta UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordeak sinatutako bideragarritasun txostena.
5. Eskatzailearen IFZren fotokopia.

**UPV/EHUko IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDEAREN SINADURA
LORTZEKO PROZEDURA:**

Interesdunek "I. eranskina" bidali beharko dute convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera, proposatutako ikerketa taldea azter dadin. Horretarako azken eguna **2015eko urriaren 16a, ostirala**, izango da.

Proiektuaren aurkezpena ontzat ematen bada, Errektoreordetzak oinarrien ale bat eta dagokion bideragarritasun txostena bidaliko dizkio ikertzaile nagusiari, Ikerketaren arloko errektoreordearen abalarekin.

Egun horretatik aurrera, ezin izango da bermatu lege ordezkariaren abala eduki behar duen dokumentazioa epearen barnean bidaliko denik.

Informazio gehiago:

<http://campus.dexeus.com/quienes-somos/fundacion-dexeus/becas-y-premio-fundacion-dexeus-salud-de-la-mujer/becas-fundacion-dexeus>

Dexeus Fundazioarekin harremanetan jartzeko:

Tel.: 93 227 47 15

Helbide elektronikoa: fundación@dexeus.com

UPV/EHUrekin harremanetan jartzeko:

Tel.: 94 601 80 08

Faxa: 94 601 58 56

Helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.eus